



Barakaldoko udalak estruktura bat jarri nahi du Barakaldoko Juan Ignacio Gorostiza (gaur egun Alkartu eskola dena) eskolako eraikinaren aurrean. Estruktura honek eraikin historiko honetan inpaktu handia izango duela salatu du EH-Bilduk. Gainera Barakaldoko udalak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren informen kontuan hartu gabe lanak egin nahi dituela, gaineratu du EH-Bilduk. Horregatik neurriak aldarrikatu ditu Barakaldoko Juan Ignacio Gorostiza eraikina babesteko daukan balio kultural, historikoa... babesteko. Zentzu honetan arauz besteko proposamena aurkeztu du Bizkaiko batzar nagusietan, kultura-ondasun gisa deklaratu izan dadin.

EH-Bilduren mozioa:

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Josu Unanue Astoreka EH Bilduren taldeburuak eta Maria Jesus Padrones Sanjuanes EH Bildu taldeko batzarkideak, Barakaldoko Juan Ignacio Gorostiza eskolako eraikin historikoa babesteari inguruan ondoko ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten dute Kultura eta Euskera Batzordean eztabaidatua izan dadin.

ARRAZOIKETA

Barakaldoko Udala gaur egun Alkartu Ikastola kokatzen den Juan Ignacio Gorostiza eskolako eraikin historikoan obrak egiteko tramiteak egiten ari da. Horretarako eraikin honek udal mailan zuten babes maila modu partzialean erretiratu dio, inpaktu handia izango lukeen estruktura eraikinaren aurrealdean eraiki ahal izateko. Guzti hau egin du Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzako teknikoek egindako txostenaren aurka eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egin duen txosten teknikoaren iritzia kontra. Eskolako eraikina

berak balio kultural nahikoa izateaz gain bere inguruneari erreparatuta, San Bizente parkeko multzoan kokatua dago, non balio arkitektoniko eraikin eta elementu inportanteak dauden. Berandu izan baino lehen neurriak eta erabakiak hain behar direla uste dugu, eta hori dela EH Bildu Batzar Nagusietako taldeak hurrengo ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, Euskera eta Kultura Batzordean premiazko moduan eztabaidatzeko.

ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA

1- Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen diote bere esku dauden eta beharrezkoak diren ekimen guztiak abiatu ditzala Barakaldoko Udalak Juan Ignacio Gorostiza eskolako eraikin historikoan egin nahi dituen obren hasiera bertan behera uzteko,

2- Bizkaiko Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote Barakaldoko Juan Ignacio Gorostiza eskolako eraikin historikoa, kalifikatutako kultura-ondasun gisa deklaratzeko espedienteei hasiera eman diezaiola, dagokien oharpen prebentiboa Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldan jasoz

Bilbao, 2018ko azaroak 22